

7-FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektu kulinarioa aurrera eramateko jarduera klabe ugari izango ditugu. Publizitatean adibidez, “influencerrekin” batera kanpainiak edo jarduera ezberdinak egingo ditugu, bezeroek gure zerbitzua jarduera edo pertsona erakargarri batekin erlazionatzeko. Gainera, lehen esan bezala, hasiera bateko eskuorriak begi bistarako erakargarriak egingo ditugu teknika desberdinak erabiliz (sarrera poema, kolore deigarriak, testuen posizionamendu estrategikoa...). Gure aplikazioan eta webgunean ere antzeko teknikak erabiliko ditugu eta programazioan erabiliko diren algoritmoak enkarguak azkar eta efizienteki egiteko ezarriko dira. Honen bidez eskatutako jatetxeei helduko zaie.

Aurreko ataletan azaldutako tabernekin izango dugun erlazio onari esker gure zerbitzurako behar-beharrezkoak diren produktuak eskuratuko ditugu.

Gainera, distribuzio sistema oso zehatza eta ondo antolatuta egongo da gure enpresaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko.

Amaitzeko, beste ekintza erakargarri batzuk ere gauzatuko ditugu (bereziki hasieran, jendeak gu hobeto ezagutzeko), kalean degustazio txokoak ezarriz eta zozketak eginez.

